



Elorriko udala

Kultura

ELORRIOKO UDALAREN 2018. URTERAKO HERRIGUNEKO JAIK ANTOLATZEKO DIRU-LAGUNTZA

OINARRI ESPEZIFIKOAK

1.- HELBURUA

Elorrioko Udalak zuzenean antolatzen dituen jaietz gain (Ferixa Nausikoak, Berrio-Otxoa eguna, Inauteriak, Errebonbilloak, Gabonak, San Inaxio eta San Juan) badira beste batzuk elkarrekin antolatzen dituztenak (azoka ekologikoa, Euskal Jaia, kultur azoka eta bi urtean behingo San Agustingo erdi aroko azoka), baita auzoetako baselizen inguruko jaiak eta baita azken urteetan hedatzen hasi diren hiriguneko auzoetako jaiak edo jaialdi antzekoak ere (Erreka kaleko jaiak, Kulotxa inguruko jaiak eta abar).

Horregatik, oinarri hauen bitartez hiriguneko auzoetako bizikideek urtean zehar antolatzen dituzten jaietarako diru-laguntzak emateko irizpideak ezartzea aurreikusi du.

Diru-laguntzak honako eremu zehatz hauetarako izango dira:

- Elorrioko herriguneko auzoetan antolatzen diren jaiak.

2.- ONURADUNAK

Diru-laguntza antolatuko den jaiarekin zuzeneko lotura duten elkarte edo auzoetako ordezkariak eska dezakete.

Oinarri espezifikoen 9.c) artikulua xedatzen duenarekin bat, Elkarrekin Erregistroan inskribatuta egotetik salbuetsita gera daitezke Elorrioko hiriguneko jai eta ospakizunak antolatzen dituzten elkarteak edo auzokideak.

3.- EPEAK

Eskabideak urte osoan zehar aurkezteko aukera dago. Ez dago zuriketa aurkezteko eperik; izan ere, eskaria benetan egindako gastuetan oinarritzen baita.



Elorriko udala

Kultura

Ekitaldi, auzo-jai edo egitarau bakoitzerako eskari bakarra aurkeztuko da. Abenduan, urtean zehar eskatzaile izan direnen beste eskari batzuk onartu ahal izango dira.

4.- INSTRUKZIOA

Eskabide-orriak kultura administrazioko unitateak bideratuko ditu.

Eskariak jaso ahala ebatziko dira.

5.- BATERAGARRITASUNA

Diru-laguntza hauek, helburu bera duten beste erakunde publiko edo pribaturen beste diru-laguntza edozeinekin bateragarriak dira. Hala ere, diru-laguntza osoa inoiz ez da izango diruz laguntzen den proiektuaren gastua baino handiagoa, gainfinantziazioa saihestekotan.

6.- PUBLIZITATEA

Onuradunak diru-laguntza jaso duen egitasmoaren hedapen edo publizitatean udalaren logotipo ofiziala ezarri beharko du. Proiektuaren gaineko elkarrizketetan, aurkezpenetan eta gainerako beste edozeinetan Elorrioko Udalaren diru-laguntza jaso izana aipatuko du onuradunak.

7.- DIRU-LAGUNTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Oinarri hauen bitartez arautzen diren diru-laguntzen kopurua ebatzeko dagokion batzordeak erabiliko dituen irizpideak honako hauek dira:

- 1.- Ekitaldiaren helburu den populazio kopurua (0-3 puntu). Eskatzaileak eskarian zehaztuko du herriko zein gunere (zeintzuk kale, adibidez, izango diren ekitaldien onuradun).
- 2.- Euskararen erabilera sustatzeko, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde egiteko edota ingurugiroa zaintzeko helburuak izatea (zeharlerro bakoitza 3 puntura arte).
- 3.- egitasmoa berritzailea izatea (0-3 puntu).
- 4.- auzokideen arteko harremanak estutzeko helburua (0-3 puntu).



Elorriko udala

Kultura

5.- Udalarekiko elkarlana erakutsi izana beste ekintza batzuetan (0-3 puntu).

Ez da diruz lagunduko 6 puntutik behera lortzen duen egitasmorik.

Gainontzekoetarako honakoa aplikatuko da: 21 puntu lortzen dituenak %85eko diru-laguntza edukiko du (gehiengoa, hala ere, 1.500 €-ko). Proporzionalki aplikatuko da irizpide hau.

Diru-laguntza ordainketa bakarrean egingo da.

Euskarri eta ahozko komunikazio guztia euskaraz edo gutxienez elebitan izan beharko da.

Jai guztiek udalaren zehaztapenak, zarataren kontrola eta abar bete beharko dituzte, jasotako baimenean Udalak zehaztu bezala. Eskatzaileak baimen horren kopia emango du eskariarekin batera.

Diruz lagunduko diren ekintzak: Foklorea, kirola, erakusketak, berbaldiak, txapelketak, artisautza eta ikuskizun-emanaldiak (musika, antzerkia, magia, ipuin-kontalariak,...), jolasak, jaietarako azpiegitura (komunak, toldoak,...)

Ez da diruz lagunduko Elorrioko Udalaren Berdintasun Sailaren aurkako txostena daraman eskaririk ez eta animalien erabilera ez-etikoa egiten duen egitaraurik eta ezta bazkari-afariri edo antzekorik ere.

8.- AURREKONTUA

Oinarri espezifiko hauetan arautzen den diru-laguntzarako aurreikusiko den zenbatekoa urtero zehaztuko da aurrekontuaren dagokion diru-ataletan.

2018 urterako aurreikusi den zenbatekoa 5.500,00 eurokoa da eta 3380.481.04 diru-ataletik ordainduko da.

9.- IRIZPIDE OROKORRAK



Elorrioko udala

Kultura

Urte batean diru-laguntza jaso izanak ez du eskubiderik sortzen.

10.- ESKARIA EGITEKO AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA

Diru-laguntza eskaria ekitaldia igaro eta faktura guztiak ordaindu eta gero aurkeztu behar da. Beraz, Udalak eskatzen duen dokumentazioa, honakoa da:

1.- Zuriketa ekonomikoa.-

Egindako gastuari dagokion jatorrizko faktura edo ordainketaren fotokopia, edo ordezkoko agiria (tiketa). Legez kanpoko agiririk ez da onartuko.

Gastua zuritzerakoan onartuko den ez betetze ehunekoa %5a izango da. Beraz, ez betetze-maila %5etik gora denean guztia proportzionalki egingo da, eta ondorioz, diru-laguntzan, ez betetze mailaren ehunekoa aplikatuko da.

Ekintzak beste diru-sarrera edo diru-laguntza jaso badu, jasotakoa aitortzera derrigortuta dago antolatzailea.

2.- Kartela eta oroitidazkia.-

Antolatzaileak ekitaldia iragartzeko kartelaren kopiarekin batera, oroitidazkia aurkeztuko du honakoak azalduz:

- ekintzaren betetze maila, jendearen parte-hartzea, balorazio subjektiboak, hurrengorako hobekuntza proposamenak eta interesekoa uste den guztia.

11.- KLAUSULA GEHIGARRIA

Diru-laguntzen Udal Ordenantza Orokorra eta 38/2003 Diru-laguntzen Lege orokorrean eta bat datozen gainontzeko lege arauetan ezarritakoari atxikiko zaizkio oinarri hauek.